Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

DEKRETUA:

Visto, se resuelve conforme se propone.

Ontzat eman ondoren, proposatutakoaren arabera ebazten da.

Zamudión, 2020 URT. 17

ALKATEA IDAZKARIA

**ERREFERENTZIA:**
**REFERENCIA:** G-2019-20
**GAIA:**
**ASUNTO:** INFORME: 2/2019/S

# TXOSTENA / INFORME

2019/04/15ean Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egin dute eta egiaztatu dute Oxinaga auzoko 7.ean obrak egiten ari direla itxitura zahar bateko sarea kentzeko (35 m, gutxi gorabehera), hesolak bere horretan utzita (atxikita daude aipatu txostenean jaso diren argazkiak).

Dada cuenta que con fecha 15/04/2019, por los servicios técnicos municipales se ha girado visita de inspección constatando que en el núm. 7 de Oxinaga Auzoa están ejecutándose obras consistentes en retirar malla de un viejo cercado (aproximadamente 35 m., dejando las estacas o postes sin tocar, acompañándose fotografías del local que están incorporadas al mencionado informe.

Aipatu lanak Oxinaga auzoko 7 zenbakian ari dira egiten, Ángel Aurre Garai jaunaren itxitura batean.

Las obras en cuestión se sitúan en Oxinaga auzoa nº 7 en el cierre de la propiedad de D. Ángel Aurre Garai.

Udalaren arkitekto teknikoak txostena egin du, adieraziz lekuan bertan egiaztatu dela bi langile 35 bat metro sare kentzen ari direla Ángel Aurre Garai jaunaren itxitura batean. Ekainaren 5an beste bisita bat eginik egiaztatu da itxitura apirilaren 15eko baldintza beretan dagoela, hau da, itxituran 35 m sare falta direla eta sare horri eusten zioten hesolek bertan jarraitzen dutela.

Considerando que por el Arquitecto Técnico Municipal se ha emitido informe indicando que: personados en el lugar en cuestión se comprueba que dos operarios están procediendo a la retirada de, aproximadamente, 35 metros de la malla que componía el cierre de la propiedad de D. Ángel Aurre Garai. Girada visita el 5 de junio, al cierre en cuestión, se ha comprobado que el mismo se encuentra en las mismas condiciones en que nos lo encontramos el 15 de abril, faltan 35 metros de la malla, que componía el cierre, y se mantienen las estacas que sujetaban dicha malla.

Bestalde, lan horiek Udalaren obra-lizentziarik gabe egin dira.

Por otra parte no consta que dichas obras cuenten con la pertinente licencia municipal.

2018ko otsailaren 27ko Alkatetzaren Dekretu bidez ikerketa-espediente bati hasiera eman zitzaion, Zamudioko udal-barrutiko Oxinaga auzoan dagoen "Uxina" bidearen izaera juridikoa egiaztatzeko. Udal honek Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 45. artikuluan eta hurrengoetan arautdtako mekanismoa baliatu du, aipatu Erregelamenduan ikertzeko ahalmena ematen baitzaie Udal Administrazioei.

Visto el expediente de investigación incoado mediante Decreto de Alcaldía de 27 de febrero de 2018, en relación al camino de "Uxina", sito en Oxinaga en el término municipal de Zamudio, cuya finalidad es la verificación de la naturaleza jurídica del camino en cuestión, este Ayuntamiento dispone del mecanismo regulado en el art. 45 y ss del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales en cuanto recogen entre las prerrogativas de la Administración Municipal, la de la Potestad Investigadora.

Bideratzen ari dira Bilboko Instrukzioko 3. Epaitegiaren aurrean gauzatutako 305/2018 zenbakiko aurretiazko eginbideak, besteak beste aipatu espedientetik etorriak, eta, gainera, aipatu ikerketa-espedientea

Visto que se están sustanciando las Diligencias Previas nº 305/2018 seguidas ante el Juzgado de Instrucción nº 3 de Bilbao, derivadas de entre otros, el citado expediente, así como la suspensión de dicho expediente de investigación debido a la

www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

geldiarazita dago José María Zárate Bustinza jaunak prejudizialitate penala argudiatu duelako, espediente hori 2018ko maiatzaren 28ko Dekretuan jasotako ebazpenaren zain dagoelako.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 219. artikuluan xedatutakoa ikusirik:

Lege horren xedeetarako, ezkutukotzat joko dira lizentzia behar izanik legean eskatzen diren administrazio-titulu legitimatzailerik gabe edo haiek alde batera utzita edo urratuz egiten ari diren edo gauzatu diren jarduketak.

Jakinarazi da ezkutuko esku-hartzeak egiten ari direla txostenean aipatzen den lekuan. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. artikuluan araututa dago zer jarduketak behar duten hirigintza-lizentzia eta kasu honetarako, zehazki, honakoa aipatzen da:

l) Lursailen itxiturak, hormak eta hesiak.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 220. artikuluak ezkutuko obrak edo erabilerak berehala geldiaraztera derrigortzen du alkatea:

"20. artikulua. Berehalako etetea.
1. Alkateak era batera edo bestera ezkutuko obra eta erabileren berri izaten badu, obra edo erabilera horiek berehala etetea aginduko du.
2. Eteteko agindua hausten bada, hertsatze-isunak ezarriko dira agindua hausten den bitartean: hilabete bakoitzeko bat. Halaber, ministerio fiskalera eramango da dagokion testigantza, baldin eta ekintza horiek desobedientzia-delitua direlako arrastorik baldin bada. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa, hain zuzen, jarraian adierazten diren zenbatekoetatik handiena izango da: ezkutuko jardueraren balioaren % 10 edo 600 euro".

2/2006 Legeko 220. artikuluak honela dio, legeztatzeko araubideari dagokionez:

"1.- Herri-administrazio batek, bereak dituen jarduerak edo bere ardurakoa den ikuskapena egiten ari den bitartean, ezkutukotzat jo daitezkeen ekintza edo jarduketen berri izaten badu, horren berri eman beharko dio

prejudicialidad penal invocada por D. José María Zárate Bustinza, al encontrarse el citado expediente pendiente de resolución recogida en el Decretode 28 de mayo de 2018.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 219. artikuluan xedatutakoa ikusirik:

A los efectos de esta ley, tendrán la consideración de clandestinas cuantas actuaciones objeto de licencia se realicen o hayan realizado sin contar con los correspondientes títulos administrativos legitimantes requeridos en la presente ley o al margen o en contravención de los mismos.

Se da cuenta de la existencia de unas actuaciones clandestinas, en la ubicación a la que se refiere el informe. La Ley 2/2006 de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo del País Vasco regula en su Artículo 207 todos los actos que deben estar sujetos a licencia urbanística, y para este caso concreto se mencionan los siguientes:

l) El cerramiento de fincas, muros y vallados.

El Artículo 220 de la Ley 2/2006 obliga al Alcalde a ordenar de forma inmediata la suspensión de las obras o usos clandestinos:

"Artículo 220. Suspensión previa.
1. Cuando el alcalde tenga conocimiento, por cualquier medio, de que se están realizando obras o usos clandestinos, ordenará de forma inmedia' la suspensión de los mismos.
2. El incumplimiento de la orden de suspensión dará lugar, mientras persista, a sucesivas multas coercitivas por plazos de un mes, así como al traslado del testimonio pertinente al Ministerio Fiscal en el supuesto de existir indicios de que los hechos fueran constitutivos de delito de desobediencia. El importe de cada una de estas multas será la mayor de las siguientes cantidades; el 10% del valor de la actuación clandestina, o una cantidad alzada de 600 euros."

El Artículo 221 de la Ley 2/2006 en cuanto al régimen de legalización dice así:

"1.- Cuando, con ocasión del desarrollo de sus actividades propias o de la inspección que les incumba, cualquier administración pública tenga conocimiento de actos o actuaciones susceptibles de ser calificados como clandestinas, deberá dar

jardueron tokiko udalari. Udalak, berriz, aurreko artikuluan adierazitako etendura agindu beharko du, eta ebazpen hori eginbideetan zuzeneko erantzule gisa ageri diren pertsonei jakinarazi beharko die.

cuenta al ayuntamiento en cuyo término se estén realizando o se hayan realizado las actuaciones de que se trate. Éste deberá ordenar la suspensión prevista en el artículo anterior y notificar dicha resolución a las personas que consten en las diligencias practicadas como directamente responsables.

2.- Udalak ekintza edo jarduera bat ezkutuan egiten ari dela jakiten badu, eteteko agindua emango du alkateak, eta agindu hori higiezinaren jabeei jakinaraziko zaie. Jakinarazpen horretan, bestalde, deialdia egingo zaie, lehenago prozedura abiarazita, baldin eta ekintza edo jarduketa printzipioz legeztagarria bada, hura legeztatzeko eskaera aurkez dezaten gehienez ere hilabeteko epean, eta, hala dagokionean, baita hartarako proiektu tekniko nahikoa ere. Hori guztia egiteko, legeztatzeko kontuan izan behar den hirigintza-informazio guztia erantsiko zaio jakinarazpenari.

2.- Conocida por el ayuntamiento la existencia o realización de un acto o una actuación clandestina, el alcalde dictará la orden de suspensión, que será notificada a los propietarios del inmueble, emplazándoles, previo procedimiento, para que, si la actuación fuera en principio legalizable, en el plazo máximo de un mes presenten solicitud de legalización del acto o la actuación de que se trate, acompañada, en su caso, del proyecto técnico suficiente al efecto. A tal fin, se adjuntará a la notificación la información urbanística que deba tenerse en cuenta para la legalización.

3.- Aurrez proiektu teknikoa aurkeztea eskatzen duten obrak direnean, legeztatzeko proiektuak etxe edo eraikin berri baten proiektu teknikoari eska dakizkiokeen agiri guztiak izango ditu bere baitan. Jarduketan lehendik zeuden erresistentzia-elementu batzuk kontserbatzea jasotzen bada, saioak egingo dira elementu horien eusteko ahalmena justifikatzeko.

3.- En el supuesto de obras para cuya ejecución se requiera la presentación de previo proyecto técnico, el proyecto de legalización deberá contener toda la documentación exigible a un proyecto técnico de nueva construcción o edificación. En caso de recoger la permanencia de elementos resistentes se justificará, mediante ensayos, su capacidad portante.

4.- Udal-administrazioak, legeztatzeko eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean, behin betiko ebazpena emango du, eta ekintza edo jarduketa hori legezta daitekeen ala ez jakinaraziko du.

4.- La administración municipal, dentro de los tres meses siguientes a la presentación de la solicitud de legalización, resolverá definitivamente y notificará sobre el carácter legalizable o no del acto o la actuación.

5.- Jarduketa legezta daitekeela adierazten bada, lege honetan aurreikusitako prozedurak eta ezarritako epeak beteko dira, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontrol-lanak egiteko.

5.- En el caso de declararse legalizable la actuación, se seguirán los procedimientos y observarán los plazos previstos en la presente ley para la realización de los actos de control que en cada caso sean aplicables.

6.- Jarduera ezin dela legeztatu adierazten bada, edo legeztatzeko eskaera epez kanpo aurkeztu bada, honako hauek egiteko aginduko da, ezarri ahal izango diren zehapenak ere ahaztu gabe:

6.- Cuando se declare no legalizable la actuación o no se hubiera presentado en plazo solicitud de legalización, se ordenará en el mismo acuerdo, con independencia de las sanciones que pudieran imponerse:

a) Etxe, eraikin eta instalazioen obrak eraistea, eta lursaila jatorrizko egoerara leheneratzea, oin berriko obrak direnean. Interesdunak ordaindu beharko du hori.
b) Erabilerak behin betiko etetea, hala dagokionean.

a) La demolición, a costa del interesado, de las obras de construcción, edificación o instalación realizadas, con reposición del terreno a su estado original, cuando se trate de obras nuevas.
b) El cese definitivo del uso o los usos, en su caso.
c) La reconstrucción de lo indebidamente demolido,

www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: [illegible] / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

c) Bide gabe eraitsitakoa berriro eraikitzea, monumentu modura katalogatu edo deklaratuta edo gune babestu batean kokatuta dauden etxe, eraikin edo instalazioak direnean.

cuando se trate de la demolición de una construcción, edificación o instalación catalogada o declarada monumento o inserta en un área protegida.

7.- Administrazioak, legeztatzeko errekerimenduen eraginkortasuna bermatzeko, kautelazko neurri hauek hartzea erabaki dezake:

7.- La administración podrá acordar en cualquier momento las siguientes medidas cautelares para garantizar la efectividad del requerimiento de legalización:

a) Egikaritzen ari diren ekintza edo jarduketak direnean, lanak etetea, eta, horrez gainera, tokitik irtetea, obran erabilitako materialak eta makinak erretiratzea, eta higiezinak eta obra-instalazioak ixtea.
b) Gasaren, uraren eta elektrizitatearen hornidura etetea, kasu guztietan. Salbuespen izango dira etxebizitzaren lege-izaera duten higiezinak.

a) Cuando tengan por objeto actos o actuaciones en curso de ejecución, además de la suspensión, el desalojo, la retirada de materiales y maquinaria afectos a la obra y el precinto de los inmuebles y de las instalaciones de obras.
b) En todo caso, la suspensión del suministro de gas, agua y electricidad, salvo que los inmuebles tuvieran la condición legal de domicilio.

8.- Ezkutuan egin diren hirigintzako ekintza edo jarduketak legeztatzeak ez du iraungitzen hirigintzako arau-haustea egin duten pertsonek izan dezaketen zehapen-erantzukizuna.

8.- La legalización de actos o actuaciones urbanísticas clandestinas no extingue la responsabilidad sancionadora en que por infracción urbanística hayan podido incurrir las personas que hayan contribuido a las mismas.

9.- Legeztatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak, gainera, ezkutuan egindako ekintza edo jarduketen ondorioz eta horiek legeztatzearen ondorioz eman beharreko kalte-ordainak adieraziko ditu."

9.- La resolución que ponga fin al procedimiento de legalización indicará además las indemnizaciones que procedan derivadas de la realización del acto o la actuación clandestina y de su legalización."

Aipatu lanak legeztatzeko aukerari kalterik egin gabe, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 82. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, eta aipatu obra osatzen duten elementuak bertatik kentzeko agindua emateko aukera aztertu aurretik, interesdunari entzunaldia egingo zaio; bertan, espedientearen berri emango zaio eta bere eskubideei dagozkien alegazioak egin eta dokumentuak aurkezteko aukera izango du. Abiatutako espedientetik ondorioztatzen da aipatu esku-hartzeak ez duela dagokion hirigintza-lizentziarik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207.1 b), c), d), l), m) eta w) artikuluan eta 219. artikuluan eta hurrengoetan xedatuta dagoenaren arabera.

Sin perjuicio de imprejuzgar la posibilidad de legalizar o no dichas obras, y a tenor del artículo 82 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas y su carácter previo a resolver sobre una eventual orden de retirada de los elementos que componen las citadas obras, procede otorgar a los interesados trámite de audiencia, en el que poniéndoles de manifiesto el expediente, formule las alegaciones y presente los documentos que en su derecho convenga. Del expediente incoado se desprende que dicha actuación no cuenta con la preceptiva licencia urbanística de conformidad con lo dispuesto en el artículo 207.1 b), c), d), l), m) y w) de la y 219 y ss. de la Ley 2/2006 de 30 de junio del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

HAU ERABAKI DUT:

DISPONGO:

1.- Ezkutuan eta hirigintza-lizentziarik gabe egindako jarduketatzat jotzea Oxinaga auzoko 7.eko itxituran egindako lanak.

1.- Declarar como actuaciones clandestinas las obras ejecutadas en el cerramiento de Oxinaga auzoa nº7, todo ello sin licencia urbanística.

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

2.- Ezkutuko jarduketa eta erabilera horiek berehala eteteko eskatzea Ángel Aurre Garai jaunari, eta jakinaraztea agindu hori hausten badu hertsatze-isunak ezarriko direla agindua hausten den bitartean: hilabete bakoitzeko bat. Eta halaber, ministerio fiskalera eramango dela dagokion testigantza, baldin eta ekintza horiek desobedientzia-delitua direlako arrastorik baldin bada. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa, hain zuzen, jarraian adierazten diren zenbatekoetatik handiena izango da: ezkutuko jardueraren balioaren % 10 edo 600 euro.

3.- Ángel Aurre Garai jaunari hilabeteko epea ematea jarduketa legeztatzeko baimena eskatzeko, eta, hala badagokio, beharrezkoa den proiektu teknikoa aurkeztea baimen-eskariarekin batera. (Legeztatzeko kontuan izan behar den hirigintza-informazio guztia erantsiko zaio jakinarazpenari).

4.- Ángel Aurre Garai jaunari hamabost eguneko epea ematea administrazio-espedientean adierazitakoa ikusirik bere eskubideei dagozkien alegazioak egin eta dokumentuak aurkezteko, Oxinaga auzoko 7.ean Udalaren lizentziarik gabe duen itxituraren inguruan hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko agindua eman ahal izateko.

5.- Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Hau da nire uste eta jakite leiala, maila teknikoan eta zuzenbidean hobeki oinarrituriko iritziei kalterik egin gabe, Zamudion, 2019ko ekainaren 26an.

2° Ordenar a D. Ángel Aurre Garai la inmediata suspensión de las actuaciones y usos clandestinos antes citados, apercibiéndole que el incumplimiento de esta orden dará lugar, mientras persista a sucesivas multas coercitivas por plazos de un mes, así como el traslado del testimonio pertinente al Ministerio Fiscal en el su-puesto de existir indicios de que los hechos fueran constitutivos de delito de desobediencia. El importe de cada una de las multas será la mayor de las siguientes cantidades: el 10% del valor de la actuación clandestina, o una cantidad alzada de 600 euros.

3.- Conceder a D. Ángel Aurre Garai, un plazo de un mes para presentar solicitud de legalización, si lo fuera, de la actuación de que se trate, acompañada, en su caso, del proyecto técnico suficiente al efecto. (Se adjuntará a la notificación la información urbanística que deba tenerse en cuenta para la legalización).

4.- Conceder a D. Ángel Aurre Garai, un plazo de quince días, en el que en vista del expediente administrativo pueda formular las alegaciones y presente los documentos que a su derecho convenga en relación a una eventual orden de restauración de la legalidad urbanística en relación al cierre de su titularidad sito. en Oxinaga auzoa n° 7 sin licencia municipal.

5.- Notificar esta resolución al interesado.

Este es mi leal saber y entender, sin perjuicio de mejor opinión técnica y en derecho que someto a su superior criterio y ello en Zamudio a veintiséis de junio de dos mil diecinueve.

AHOLKULARI JURIDIKOA / EL ASESOR JURÍDICO

Stua./Fdo.: Jon Saiz Pradana